

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

GERNIKA-LUMO

Plan estrategikoa: 2009-2012

Data: 2008-10-24

Helburu nagusia **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.**

Helburu estrategikoa 1 - Euskara ondorengoetaratzea**Esparrua****1. a - Irakaskuntza**

Neurria

1. a. 001 - Gazte etorkinei begirako diagnostikoa egin ostean, horrekin loturiko Plan Berezia eratu behar da eta irakaskuntza esparrurako ekintza aproposak finkatu, ikasle etorkinak euskararen mundura erakartzeko.

Ekintza

1. a. 001/001 - Urteroko Kudeaketa Planetan, Gazte etorkinen diagnostikoaren gaineko Plan Bereziaren arabeko ekintzak finkatu

Neurria

1. a. 01 - Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.

Ekintza

1. a. 01/2 - Euskaldunen portzentajea altua duten udalerrietako ikastetxeekin elkartrukaketak egin, gune erdaldunagoetatik gune euskaldunagoetara, gune erdalduneko eskolameek beste errealitate soziolinguistiko bat ezagutu dezaten

Neurria

1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintza

1. a. 03/8 - Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini

1. a. 03/9 - `Euskara Zine Aretoetara? programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)

1. a. 03/001 - Bertsolaritza Gernika-Lumon, urteroko programa

1. a. 03/1 - Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan (inprimakiak, bilera aktak, zirkularra,...) euskara erabiltzeko laguntzak eskaini

1. a. 03/2 - Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini

1. a. 03/4 - Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta bestelako erakundeek (Europako Batzordeak, Europako Kontseiluak, ...) hizkuntzak sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta dirulaguntzen berri eman

1. a. 03/5 - Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea

Neurria 1. a. 06 - Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu.

Ekintza
1. a. 06/002 - Udal Eskola kontseilua eskolaz-kanpoko egitarauak burutzeko koordinazio-gunea izanik, herriko dinamikarekiko zubiak eraiki
1. a. 06/2 - Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Batzordean ikastetxearen presentzia bermatzea

Esparrua 1. b - Euskalduntze-alfabetatzea

Neurria 1. b. 001 - 16-24 urte bitarteko gazte etorkinei buruzko diagnostikoa egin ostean, euren euskalduntze prozesuari begirako Plan Berezia eratu behar da (euskarara hurrera daitezen moduloak, ekintzak, guneak, erreferenteak,...)

Ekintza
1. b. 001/001 - Gazte etorkinak euskarara hurreratzeko ekintza bereziak finkatu Kudeaketa Planean.

Neurria 1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabilerearen ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketean giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintza
1. b. 01/001 - Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa.
1. b. 01/005 - Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko araudia eraberritu eta egungo beharrianetara egokitu
1. b. 01/1 - Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu
1. b. 01/5 - Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua
1. b. 01/4 - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea

Esparrua 1. c - Familia

Neurria 1. c. 001 - Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako udal elkargoak moldaturiko II. inmigrazio planaren ildotik, etorkinak euskara mundura erakartzeko etorkinen familiei eskaintza berezia egiteko bideak jorratu behar dira, gizarteratzearen atal garrantzitsua den hizkuntza integrazioa lortzeko.

Ekintza

1. c. 001/001 - Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako udal elkargoarekin elkarlanean aritu, II. Inmigrazio Planaren ildotik burututako ekintzak direla eta.

Neurria 1. c. 002 - Familia bere osotasunean partaide izanik egitarauak areagotzeko instituzio eta gizarte eragileen konpromisoak finkatu.

Ekintza

1. c. 002/001 - Hitzarmenak sinatu instituzioak eta gizarte eragile desberdinekin, urtean zehar familia osoari begirako ekintzak garatzeko.

Neurria 1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindaria, ...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezua eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintza

1. c. 01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai hurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak, familien arteko lehiaketa.
--

1. c. 01/10 - Haurtzaindegiaren zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko

1. c. 01/004 - Merkatuan dauden euskarazko produktuen zabalkundea egin.

1. c. 01/5 - Haurrak izango dituzten bikoteei behar dituzten zerbitzuak eskaini (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa, ...)
--

1. c. 01/12 - Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuek, ...)

1. c. 01/1 - Euskaraz dakiten haur zainzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini

Helburu estrategikoa 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

Esparrua 2. a - Administrazioa

Neurria 2. a. 001 - Plan Estrategikoaren jarraipenerako eta balorazio orokorrerako balio izango duten hausnarketa-bilguneak, neurketak eta diagnosiak egiteko ekintza zehatzak jarri behar dira abian, beharizanen arabera eta urte bakoitzeko Kudeaketa Planetan txertatuz.

Ekintza
2. a. 001/001 - Urteko Kudeaketa Planerako lehentasuna duen neurketa/diagnostiko berezia egitea
2. a. 001/002 - II. Plan Estrategikoa eta urte bakoitzeko Kudeaketa Planak eratzeko orduan gizarte eragileen ekarpenak jasotzeko protokoloa finkatu

Neurria 2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

Ekintza
2. a. 01/1 - Agintariak ere programa hauetan inplikatu, Administrazioko Erabilera Planerako Talde Eragilean parte hartuz.
2. a. 01/2 - Dirulaguntzak banatzeko deialdietarako ezarrita dauden hizkuntza-irizpideak zehaztu Administrazioko hurrengo Erabilera Planean.
2. a. 01/003 - Udalaren Administrazio-kontratu mota desberdinetako Baldintza Pleguetan hizkuntza irizpideak jasotzeko protokoloa finkatzea.
2. a. 01/3 - Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eta prestakuntza eskaini
2. a. 01/5 - Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2009-2012 eperako plan berria tajutu, onartu eta garatu.
2. a. 01/7 - Euskararen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren betetze-maila aztertu eta egungo egoerara egokitu.
2. a. 01/8 - Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/9 - Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/10 - Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/11 - Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/12 - Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu
2. a. 01/13 - Udalak egiten dituen obra kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/14 - Udalak egiten dituen aholkularitza eta asistentzia kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/4 - Euskaldun ororengana iristeko Komunikazio Plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.

Neurria 2. a. 04 - Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.

Ekintza
2. a. 04/2 - Euskara Zerbitzuaren funtzioen arabera, giza baliabideak neurtu eta behar diren lanpostuak Plantila Organikoan sortu.
2. a. 04/4 - Udalerriko Euskara Batzordearen plenarioa berpiztu eta bere magalean Batzorde Eragilea eratu

Esparrua 2. c - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Neurria 2. c. 001 - Teknologia berrien erabilpenaz udalerrian diagnostikoa egin eta udalerriko arloko eragileekin elkarlanean aritzeko foroa/bilgunea sortu behar da eta ekintzak proposatu, kutsu enpresariala oinarri eta euskararen erabilpena helburu.

Ekintza
2. c. 001/001 - Egindako diagnostikoa oinarri, teknologia berrien esparruan ekiteko Plan Bereziaren araberrako ekintzak finkatu Kudeaketa Planean

Neurria 2. c. 06 - Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintza
2. c. 06/001 - Udalaren web orri berria euskarazko atal berezia landu eta euskalgintzako zein euskararekiko atxikimendua duten elkarteekiko loturak sortu.
2. c. 06/3 - Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean
2. c. 06/4 - Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza tekniko eta diruzkoa eskaini
2. c. 06/2 - Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini

Neurria 2. c. 07 - Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.

Ekintza
2. c. 07/1 - Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaldu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa,...

Esparrua**2. d - Enpresa-mundua**

Neurria

2. d. 001 - Merkataritza eta enpresa jardunak bezeroen hizkuntza eskubideekiko eragin nabarmena du. Beraz, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko 123/2008 Dekretuak finkaturikoa gauzatu ahal izateko ekintzak sustatu behar dira eragileekin elkarlanean. Hau guztia, esparru honetan egin beharreko motibazio eta sentsibilizazio kanpainez gain.

Ekintza

2. d. 001/001 - Kontsumitzaileen eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua bete dadin ekintza zehatzak eratzea

Neurria

2. d. 01 - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintza

2. d. 01/3 - Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko laguntza eskaini

2. d. 01/4 - Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin

2. d. 01/7 - Eraginkorrek diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin

2. d. 01/8 - Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza tekniko edo diruzkoa eman, ezarrita dauden irizpideekin bat etorritz

2. d. 01/9 - Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri eta inplementazioa landu

2. d. 01/1 - Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini

2. d. 01/2 - Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak, ...)

2. d. 01/6 - Sektoreetako arduradunei (dendariei, tabernariei, ...) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi

Neurria

2. d. 03 - Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industrias, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileekin partehartzea lortzeko.

Ekintza

2. d. 03/1 - Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan-banako sentiberatze jardunak egin

2. d. 03/2 - Sindikatuak, Merkatal Ganbarak eta enpresa munduan eragina duten agenteekin euskara bultzatzen lan egin

Esparrua**2. e - Aisia**

Neurria

2. e. 001 - EBPnk berak eta Gernika-Lumoko aurreko Plan Estrategikoak ere aisiaren esparrua haur eta gazteekiko planteatzen zuten batik bat. Ordua da aisiaren kontzeptu zabalagoa aintzat hartzea eta helduen aisiari gehiago erreparatzea. Horretarako, elkarteei (gazteria arlokoak, kulturakoak, ongizatekoak –emakume, alargun, hirugarren adinekoen elkarteak-, gobernu kanpoko erakundeetakoak, ...) begirako HITZARMENGINTZA modu bateratuan landu behar da, aisialdiarekin konpromiso zuzena dutenek elkarteetatik bideratzen dutelako gogo hori. Beraz, elkarten barru eta kanpoko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko jokabideak finkatu behar dira.

Ekintza
2. e. 001/001 - Elkarteen barru eta kanpoko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko hitzarmenak sinatu
2. e. 001/002 - Hitzarmenkide diren elkarteei zerbitzu iraunkorra eta aholkularitza globala eskaini, barruko zein kanpoko kudeaketari dagokionean

Neurria

2. e. 01 - Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex,...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro

Ekintza
2. e. 01/1 - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu
2. e. 01/3 - Aisialdiko taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratu
2. e. 01/4 - Euskaraz dakiten aisialdirako begiraleen lan poltsa osatu eta urte birik behin berriztatu

Neurria

2. e. 03 - Euskararen aldeko ekintza soilen orde, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintza
2. e. 03/1 - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
2. e. 03/001 - Asteburuetako aisialdia deituriko programa
2. e. 03/2 - Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu
2. e. 03/3 - Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu
2. e. 03/6 - Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu
2. e. 03/7 - Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatu
2. e. 03/4 - Irteerak euskaraz antolatu
2. e. 03/5 - Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu

Esparrua**2. f - Kirola**

Neurria

2. f. 01 - Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

Ekintza
2. f. 01/001 - Kirol Elkarrekin hitzarmenak sinatu, euskararen erabilpena areagotzeko.
2. f. 01/002 - Hitzarmen kide diren elkartei zerbitzu iraunkorra eta aholkularitza globala eskaini, barruko zein kanpoko kudeaketari dagokionean
2. f. 01/4 - Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin
2. f. 01/2 - Kirol munduko teknikari euskaldunen zerrenda egin (monitore, entrenatzaile...) eta zabaldu

Neurria

2. f. 02 - Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen `Denontzako Kirola? programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintza
2. f. 02/1 - Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egin
2. f. 02/3 - Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko indarrean dauden hizkuntza-irizpideak zehaztu
2. f. 02/001 - Udalaren Kirol erakundearen diagnostikoa egin eta, emaitzen arabera, erakunde horretarako Erabilera Plan berezi bat atondu

Esparrua**2. g - Erljioa**

Neurria

2. g. 001 - Esparru honetan modu zabalagoan jokatu beharra dago, beste erlijio batzuei erreparatuz. Gizartean jokoan dauden bariabile askoren artean, inmigrazioaren eragina ere badago, eta honek beste sinismen eta ohitura asko erakarriko ditu gurera, bertoko eta bertokotuen artean izango den nahasmenaren ondorioa.

Ekintza
2. g. 001/001 - Udalerrian bizirik dauden erlijio desberdinen eta biztanleriarengan duten eraginaren diagnostikoa egin.

Neurria 2. g. 03 - Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei.

Ekintza
2. g. 03/001 - Udalerriko elizbarrutiarekin sinatutako hitzarmena oinarri, zerbitzu iraunkorra eskaini euskararen erabilpena areagotzeko
2. g. 03/1 - Katekesia eskaintzerakoan erabilitako hizkuntza irizpideen jarraipena egin

Helburu estrategikoa 3 - Euskararen elikadura**Esparrua 3. a - Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea**

Neurria 3. a. 001 - Corpusaren inguruan landutakoa herritarrei eskaintzeaz gain, kalean erabiltzen den euskarazko akatsen diagnostikoa egin eta ahozko hizkera zuzenerako egitasmoa eratu beharra dago. Beraz, kontuan hartuta bigarren helburu estrategikoa (euskararen erabilera) dela indartu behar dena besteen gainetik, kasu honetan euskalduntze-alfabetatze esparruko ekintzekin batera jokatu beharko da.

Ekintza

3. a. 001/001 - Kalean erabiltzen den euskararen diagnostikoa egin, akatsik nabarmenenak zeintzuk diren finkatu eta zuzentzeko egitasmoa eratu.

Neurria 3. a. 03 - Hizkuntza-paisaia ugaltu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintza

3. a. 03/4 - Merkatal gunetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetakoan) euskararen presentzia txukundu eta areagotu

3. a. 03/001 - Udan Euskal Herriko Unibertsitateetan euskaraz eskaintzen diren ikastaroetan matrikulatzeko dirulaguntzak

3. a. 03/2 - Hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaini.

Esparrua 3. c - Liburugintza

Neurria 3. c. 01 - Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkaturaz zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.

Ekintza

3. c. 01/1 - Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan

3. c. 01/2 - Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu

Neurria 3. c. 04 - Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarten artean.

Ekintza
3. c. 04/1 - Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (Eusko Ikaskuntza, idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu
3. c. 04/002 - Udalerriko ohitura, historia eta gertaerei buruzko argitalpen-bilduma gorpuztu

Esparrua**3. f - Publizitatea**

Neurria

3. f. 01 - Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako `inertzia?', `errentagarritasun eza?' eta `konnotazio negatiboak? neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.

Ekintza
3. f. 01/001 - Publizitatea euskaraz egitearen alde, udalerrri mailako komunikabideekin planteamendu orokor bat lantzea
3. f. 01/1 - Publizitatea euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egin sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkarte, ostalarien elkarte,...)

Neurria

3. f. 02 - Herri-erakundeak euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

Ekintza
3. f. 02/1 - Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman

Esparrua**3. g - Kulturgintza**

Neurria

3. g. 01 - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintza
3. g. 01/1 - Udalaren menpeko kultur gunetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea
3. g. 01/2 - Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu

Neurria 3. g. 03 - Kulturgintza: Euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu.

Ekintza
3. g. 03/1 - Euskaraz ulermena soilik duen publikoa erakartzeko ikuskizun bereziak eskaini

Neurria 3. g. 04 - Kulturgintza: Administrazio guztien arteko loturak sendotu.

Ekintza
3. g. 04/1 - Inguruko herriein kultur zirkuituak antolatu eta goi erakundeek antolatzen dituzten zirkuitoetan ere parte hartu

Neurria 3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintza
3. g. 05/2 - Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira
3. g. 05/5 - Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu
3. g. 05/6 - Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri
3. g. 05/1 - Kultur jarduerak sortarazten duten materialaren itzulpenak egiteko laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini
3. g. 05/002 - Udalerriko Kultura Plan bat eratzea sustatu eta euskararen erabilerarako hizkuntza irizpideak txertatu.
3. g. 05/7 - Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea
3. g. 05/4 - Herrian dauden kultur talde desberdinak eta hauen lana ezagutarazi

Esparrua

3. h - Hedabideak

Neurria 3. b. 01 - Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintza
3. b. 01/1 - Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea
3. b. 01/2 - Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu

Neurria 3. b. 02 - Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Ekintza
3. b. 02/1 - Eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak
3. b. 02/2 - Euskarazko herri edo eskualdeko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatu

Neurria 3. b. 03 - Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

Ekintza
3. b. 03/1 - Eskualdean diharduten komunikabideen arteko elkarlanerako bilgunea sortu

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 001 - Gazte etorkinei begirako diagnostikoa egin ostean, horrekin loturiko Plan Berezia eratu behar da eta irakaskuntza esparrurako ekintza aproposak finkatu, ikasle etorkinak euskararen mundura erakartzeko.
Kodea	1. a. 001/001

Izena

Urteroko Kudeaketa Planetan, Gazte etorkinen diagnostikoaren gaineko Plan Bereziaren arabeko ekintzak finkatu

Deskripzioa

Neurriaren deskripzioan adierazi bezala, 12-24 urte bitarteko gazte etorkinen diagnostikoa egiteari ekin zaio 2008 urtean. Horren arabera, 2008ko abendurako prestatuko da diagnostikoari lotutako Egitasmo Berezia, egitasmoak, ekintzak eta epeak finkatuko dituen adin atal eta esparru desberdinetarako.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Hezkuntza Saila * Gazteria Saila
Udal agente espezifikoak	* BERRITZEGUNEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Aisialdia * Elkartek
------------------------------	---------------------------

	* Irakaskuntza
Beste agente espezifiko batzuk	* GERNIKAKO AEK * IRAKASKUNTZA ZENTROAK

Beste datu batzuk

Lehentasuna	Erabatekoa
Oharrak	-

Adierazleak

* Hartzaile-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 01 - Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.
Kodea	1. a. 01/2

Izena

Euskaldunen portzentajea altua duten udalerrietako ikastetxeekin elkartrukaketak egin, gune erdaldunagoetatik gune euskaldunagoetara, gune erdalduneko eskolomeek beste errealitate soziolinguistiko bat ezagutu dezaten

Deskripzioa

Gero eta gehiago dira euskarazko eredueta ikasten duten ikasleak. Dena den, oraindik ere, bada egiteko lanik euskarazko ereduak prestigiatze bidean. Hortaz, garrantzitsua da haurrei erakustea euskara dela eguneroko bizitzan komunikatzeko erabili daitekeen tresna. Horretarako, udalak, herriko haurrak inguru euskaldunagoak ezagutzera bideratzeko ekintzak bultzatu ditzake; besteak beste, Hezkuntza Sailak kudeatzen duen Ikastetxeen Arteko Binakako Loturak, `IKABIL?', izeneko programaren berri eman dezake eta horretan parte hartzeko laguntza eskaini. Programa honen bidez, euskalki eta kultur zein herri-hiri giro desberdinetako ikastetxeen arteko loturak sustatu nahi da. Trukekidea oraindik aurkitu gabe duten ikastetxeek soilik egin behar dute. Zerrendarako izena eman dutenetik Hezkuntza Sailean zerrenda prestatu eta ikastetxe horiei helaraziko zaie, trukekidea bilatzea errazteko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Hezkuntza Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Ikastetxea

Beste agente espezifikoko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Egindako elkartrukaketen kopurua eta parte hartuta

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/8

Izena

Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini

Deskripzioa

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzak badu hainbat programa; besteak beste, Idazleen Elkartearen eskutik gauzatzen den `Idazleak Ikastetxeetan? izeneko ekimena edo `Xagux@rrak, Donatoren tertulia? izeneko kanpaina. Hauen helburu zehatzak honako hauek dira: Ikastetxeetan literatur zaletasuna sustatzea, idazleen eta ikasleen aurrez aurreko harremanak bideratzea, euskal idazleen obren zabalkundea, ikasleen literatur gaitasuna sendotzea teoria praktikarekin lotuz eta, azkenik, idazteari gaur eguneko mundu gero eta teknologikoagoan leku propioa aurkitzea.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Ikastetxea
	* Eusko Jaurlaritza

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Ekintza kopurua eta partehartzaileen kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/9

Izena

`Euskara Zine Aretoetara? programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)

Deskripzioa

Programa honen bidez, ikastetxeei euskarazko filmen inguruko lanketa egiteko aukera ematen zaie. Honekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: euskal ikasleen zine zaletasuna sustatzea; zinea ikasleen giza eta gizarte balioak bultzatzeko tresna bihurtzea; ikasleak euskarazko zinearen ikusle izaten ohitzea; euskara zine munduan normaltzeko oinarriak jartzen laguntzea eta euskarazko film eskaintza egon dadin, film multzo konplitu baten oinarriak jartzea.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Ikastetxea
	* Eusko Jaurlaritza

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Emanaldi eta ikusle-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/001

Izena

Bertsolaritza Gernika-Lumon, urteroko programa

Deskripzioa

Urtero udalerriko ikastetxe/ikastoletan garatzen den programa berezia dugu Bertsolaritza Gernika-Lumon, Bizkaiko Ikastola Elkartearekin elkarlanean eta Jon Lopategi-ren ardurapean

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Hezkuntza Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Federazioa * Begirale eskolak
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Programa honekin garatzen den prozesu osoa bukatzeko, ikasturte amaierarako Gernika-Lumon ospatzen da Bizkaiko Gaztetxoen Bertso Idatzien Finala eta noizean behin Gaztetxoen Bapateko Bertsoen Finala ere.

Adierazleak

* Parte hartzen duten zentru eta ikasle kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/1

Izena

Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan (inprimakiak, bilera aktak, zirkularra,...) euskara erabiltzeko laguntzak eskaini

Deskripzioa

Ikastetxeetan garrantzi handia du eskolaz kanpo erabiltzen den hizkuntzak. Sarritan gertatzen da ikasgelaz kanpoko ekintza guztietan euskara baztertua izatea. Horregatik, hain zuzen, euskarak beste arlo guztietan garrantzia izan dezan, inguruan erabiltzea bultzatu beharra dago. Hortaz, udalak laguntza teknikoa eman dezake, adibidez, itzulpenak egiteko, ereduak lantzeko, giza baliabideak eskainiz ...

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Ikastetxea * Eusko Jaurlaritza
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Euskaraz eskainitako dokumentuen kopurua eta portz

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/2

Izena

Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini

Deskripzioa

Udalak, Hizkuntza Normalkuntzako Programak abian ez dauden ikastetxeetan, horien berri eman eta martxan jartzeko laguntza teknikoa eta baliabideak eskaini dezake: aholkularitza, itzulpen zerbitzuak, azpiegiturazkoak... eta abian direnetan, Planak garatzeko laguntza eskaini. Hortaz, ikastetxeetan Hizkuntza Normalkuntza Proiektuak egin eta gauzatzea da helburua. Proiektu horrek, lan akademiko eta didaktikoaz gain, honako hauek hartuko ditu kontuan: - Ikastetxeko eta hezkuntza elkarteko helduen bizitzako ahozko eta idatzizko harremanak - Ikastetxearen kanpo proiektzioa, inguru fisikoan eta jarduerazkoan (harremanak dituen erakunde, entitate, enpresa eta elkarrekin) eragile izateko ahalmena optimizatzea. - Ikasleen arteko euskararen erabilera eta erabilera egokia bultzatzeko programak

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Ikastetxea

* Eusko Jaurlaritza

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Udal Eskola Kontseiluan ontzat emandako araudiaren jarraiki urtero egiten da diru laguntza deialdia, Eskoletako Normalkuntza Planak garatzea helburu.

Adierazleak

* Planak burutu duten ikastetxeen kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/4

Izena

Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta bestelako erakundeek (Europako Batzordeak, Europako Kontseiluak,...) hizkuntzak sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta dirulaguntzen berri eman

Deskripzioa

Administrazioek euskara sustatzeko kaleratzen dituzten deialdien jarraipena egitea eta horien berri ikastetxeei ematera interesgarria da. Horretarako lagungarria izan daiteke Eusko Jaurlaritzako web gunea kontsultatzea (sailtako informazioa, EHAA, ...)

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Ikastetxea * Eusko Jaurlaritza
------------------------------	-------------------------------------

Beste agente espezifikoko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Honakoaren ardura Euskara Zerbitzuak baduen arren, Berritzeguneko Euskara Teknikariak egiten du honen segimendua zuzenean (Berritzeguneko eskolen arteko Euskara Mintegia du martxan).

Adierazleak

* Egindako eskabideen kopurua eta dirulaguntza jaso

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
Kodea	1. a. 03/5

Izena

Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea

Deskripzioa

Udalak informazioa emateaz gain, bestelako laguntza eskaini dezake, adibidez, ekintzak burutzeko tokia eta baliabideak (aretoak, soinu ekipamenduak...). Ahozko adierazmena indartzeko eta lantzeko ekimenetarako Hezkuntza Sailak ikastetxeei dirulaguntza ematen die urtero. Laguntza deialdi horrek Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ahozko adierazmena indartzeko saioak hartuko ditu kontuan; Eskola-Antzerkigintza, Eskola Bertso-lanketa, Eskola-Kantagintza eta Eskola-Irratigintza. Euskara hutsean edo nagusiki euskaraz prestaturiko ahozko adierazpenaren lanketara mugatzen da laguntza deialdi hau.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Ikastetxea

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Ekintza hau eskolaz kanpoko ekintzen sustapenarekin lotuta dago eta, ondorioz, horretarako ematen diren diru laguntzekin (ikasturteko antzerki lana eta umeen antzerki astea)

Adierazleak

* Ahozko adierazmena indartzeko antolatutako ekimene

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 06 - Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu.
Kodea	1. a. 06/002

Izena

Udal Eskola kontseilua eskolaz-kanpoko egitarauak burutzeko koordinazio-gunea izanik, herriko dinamikarekiko zubiak eraiki

Deskripzioa

Ikasturte bakoitzean Udal Eskola Kontseiluak finkatzen ditu komunean burutu beharreko eskolaz-kanpokoak, baina berau izan daiteke komunean burutzekoak lirakeen beste esparru batzuetako (erakunde publikoetakoak, elkarteak,...) egitasmoak eztabaidatu eta gauzatzeko, hizkuntza irizpideak kontuan.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Hezkuntza Saila * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* BERRITZEGUNEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Ikastetxea
Beste agente espezifiko batzuk	* IRAKASKUNTZA ZENTROAK

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Badaude beste saila batzuetatik eskoletarako zuzendutako ekintzak, Udal Eskola Kontseiluan aztertzen ez direnak eta, ondorioz, hizkuntza irizpideen eraginpean dauden ez dakiguna.

Adierazleak

* Batzar kopurua

* Ikastetxe-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. a - Irakaskuntza
Neurria	1. a. 06 - Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu.
Kodea	1. a. 06/2

Izena

Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Batzordean ikastetxearen presentzia bermatzea

Deskripzioa

Ikastetxeek duten erabateko eragina kontuan izanik, lan berezia egin eta beroien presentzia bermatu. Hau lortzeko, bide bat izan daiteke hitzarmenaren dinamika ezartzea, ikastetxearen borondatea eta inplikazio maila jasota gera dadin. Honen bidez, lortu beharko litzateke udalerrri mailan antolatutako ekimenetan ikastetxeetako ikasleek parte hartzea edo, gutxienez, informazioa izatea.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Ikastetxea
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Euskara Batzordean parte hartzen duten ikastetxee

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. b - Euskalduntze-alfabetatzea
Neurria	1. b. 001 - 16-24 urte bitarteko gazte etorkinei buruzko diagnostikoa egin ostean, euren euskalduntze prozesuari begirako Plan Berezia eratu behar da (euskarara hurrera daitezten moduloak, ekintzak, guneak, erreferenteak,...)
Kodea	1. b. 001/001

Izena

Gazte etorkinak euskarara hurreratzeko ekintza bereziak finkatu Kudeaketa Planean.

Deskripzioa

Urte bakoitzeko Kudeaketa Planean finkatu beharko dira ekintzak neurri honen helburua bete dadin. Hori gauzatzeko, 2008an egiten ari garen diagnostikoa izango da oinarria.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	-
Udal agente espezifikoak	* UDAL EUSKALTEGIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Elkartek
Beste agente espezifiko batzuk	* GERNIKAKO AEK * GIZARTE ZERBITZUETAKO ELKARGOA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Ekintza-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. b - Euskalduntze-alfabetatzea
Neurria	1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.
Kodea	1. b. 01/001

Izena

Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa.

Deskripzioa

2003-2008 Plan Estrategikoaren ekarpenak Euskara Batzordean jasotzerakoan Gernikako AEK-k proposatutakoa da. Eurak Bizkaia mailan euskararen erabilera indartzeko egitasmoa izanik, gure herrira egokitzeke proposamena egin zuten eta onartua izan zen. Bidean izan diren berriztapenekin dakargu 2009-2012 urteetako Plan Estrategikora.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Udal Euskaltegia
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Euskara Batzordea

Beste agente espezifikoko batzuk * BUSTURIALDEAN EUSKARAZ BIZI ELKARTEA
* GERNIKAKO AEK

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Egitasmo hau ikasturtearekin batera garatzen da eta urteroko oinarriak finkatzen dira Talde Eragilean (koordinazio gunea: Eusk. Zerbitzua, Udal eusk., AEK Eusk., Bustu. Eusk. Bizi). Azken helburua: euskalategiekin batera ekintza alternatiboak eskaintzea.

Adierazleak

* Partehartzaile-kopurua

* Ekintza-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. b - Euskalduntze-alfabetatzea
Neurria	1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gunen geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.
Kodea	1. b. 01/005

Izena

Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko araudia eraberritu eta egungo beharrianetara egokitu

Deskripzioa

Indarrean egon den araudiari ikutuak egin beharra dago, euskara ikasleen matrikulazioa eta gure udalerriko ezagutzaren bilakaera ikusita. Hau guztia, euskaltegiekin bidezko hausnarketa egin ondoren.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikokoak	* UDAL EUSKALTEGIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	-
Beste agente espezifikoko batzuk	* GERNIKAKO AEK EUSKALTEGIA

Beste datu batzuk

Lehentasuna	Erabatekoa
Oharrak	-

Adierazleak

* Urtean dirulaguntzak jaso dutenen kop

* Urtean emandako dirulaguntzak guztira

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. b - Euskalduntze-alfabetatzea
Neurria	1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.
Kodea	1. b. 01/1

Izena

Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu

Deskripzioa

Udalerrri bakoitzean euskalduntze-alfabetatze ahaleginean parte hartzearen alde dauden taldeak identifikatu behar dira. Talde horiek berebiziko garrantzia eta eragina dute gizartean; horregatik, horien inplikazioa lortzea funtsezko gauza da eta horretarako euskara ikastearen garrantziaz ohartarazi beharko dira. Gainera, era horretara, errazago antola daitezke lanbidez, ordutegiz eta edukiz homogeenak diren taldeak. Talde bakoitzari modulu bereziak eskaini beharko zaizkio bere beharren arabera HABErekin elkarlanean eta talde hauek gizartean duten eragina dela eta, talde berezitu hauentzako erreserbak egin beharko dira. Eskaintzari dagokionean, eredu honetan, udal guztiek dutenez udal euskaltegia eskaintza zabala dela esan behar da. Euskaldunen kopurua hain handia den eredu honetan, funtsezkoa da atalase mailan daudenetan indar egitea, hauek izango baitira epe labur batean euskaldunen taldera barneratuko direnak.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Ekonomia Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * HABE

* Merkatal elkarteak

* Enpresa elkarteak

Beste agente espezifiko batzuk

* GERNIKAKO AEK

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Eratzekoak diren ikastalde bereziak: gurasoak/attitta-amamak, dendariak, ostalariak.

Adierazleak

* Antolatutako ikastaroak /taldeak / ikasleak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. b - Euskalduntze-alfabetatzea
Neurria	1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.
Kodea	1. b. 01/5

Izena

Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenezako eskaintza egokitua

Deskripzioa

Indarra egin behar da atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenen artean; horientzako eskaintza egokitua landu ez ezik, ekintzak antolatu ditzake udalak euskaltegiarekin elkarlanean: hitzaldiak, txangoak, erakusketak... Ikasleei aukera eman behar zaie ikasten dutena beraien eguneroko egoeretan erabiltzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Euskaltegia

* HABE

Beste agente espezifiko
batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Honako ere BERBALAGUN egitasmotik bideratu gura da.

Adierazleak

* Partehartzaile-kopurua

* Ekintza-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. b - Euskalduntze-alfabetatzea
Neurria	1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.
Kodea	1. b. 01/4

Izena

Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sensibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea

Deskripzioa

Udalak sensibilizazioa eta informazioa landu behar du, euskara ikastearen garrantzia azaltzeko eta herrian dauden aukeren berri emateko. Horretarako, udalak euskaltegiarekin batera hainbat ekimen bultzatzea: matrikulazio garaian iragarkiak herriko edo eskualdeko komunikabideetan, herrian banatzeko esku-orria, `ikaslearen txartela? (matrikulatzen denari ematen zaion txartela, eta horrekin, adibidez, udalak antolatzen dituen ekitaldietara joateko doaneko sarrerak edo deskontuak...). Bestalde, bada giza talde bat, euskara guztiz menderatzen ez duen arren, ulermen maila altua duena eta hizketarako zailtasunak dituena. Talde hau, epe laburrean iritsi daiteke euskara erabat menderatzera, txikia baita horretarako egin beharreko ahalegina. Beraz udalak, euskara ikastearen garrantziaz sensibilizatu beharko du kolektibo hau eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri eman epe laburrean euskaldunen taldera barneratu daitezen hauek ere. Herrian euskaldunen kopurua altua denez errazagoa izango da udalaren aldetik sensibilizazio lan hori egitea, kalean bertan euskarazko giroa nagusitzen baita.

Udal agenteak

Udal agente generikoak * Euskara Zerbitzua

Udal agente espezifikoak -

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Euskaltegia

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Ertaina

Oharrak Ikastalde bereziak eratzeko egiten diren kanpainen bitartez burutzen da.

Adierazleak

* Egindako sentsibilizazio-ekintzen kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 001 - Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako udal elkargoak moldaturiko II. inmigrazio planaren ildotik, etorkinak euskara mundura erakartzeko etorkinen familiei eskaintza berezia egiteko bideak jorratu behar dira, gizarteratzearen atal garrantzitsua den hizkuntza integrazioa lortzeko.
Kodea	1. c. 001/001

Izena

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako udal elkargoarekin elkarlanean aritu, II. Inmigrazio Planaren ildotik burututako ekintzak direla eta.

Deskripzioa

Euskara Zerbitzuak egin zituen I. Inmigrazio Planerako ekarpenak eta eginak diru II. Planerakoak ere. Etorkinak gizarterako orduan hizkuntza integrazioa ere atal garrantzitsua izanik, elkarlanean aritu behar dira inplikaturako bi erakundeak, kontuan hartuta udaleko ongizate saila.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	-
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	-
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Ekintza-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 002 - Familia bere osotasunean partaide izanik egitarauak areagotzeko instituzio eta gizarte eragileen konpromisoak finkatu.
Kodea	1. c. 002/001

Izena

Hitzarmenak sinatu instituzioak eta gizarte eragile desberdinekin, urtean zehar familia osoari begirako ekintzak garatzeko.

Deskripzioa

Euskararen erabilerari buruzko kale neurketetan argi azaltzen zaigu haurren presentzian helduok euskararen erabilpen handiagoa dugula eta are gehiago eurak mintzakide direnean. Beraz, helduon arteko hizkuntza ohituretan eragiteko, sustatu egin behar dira familia giroan gara daitezkeen ekintzak burutzea.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	-
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	-
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Honakoa burutzeko, hitzarmenak sustatu beharko dira eta diruz lagundu hitzartutako egitasmoak. Bestalde, diru laguntza puntualak ere eskaini ahal izango lirateke ekintzaren helburuarekin bat datozen eskabideetarako.

Adierazleak

* Diruz lagundutako ekintza kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
Kodea	1. c. 01/7

Izena

Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai hurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak, familien arteko lehiaketa.

Deskripzioa

Talde hauek lehentasunezko helburua izan behar dute, horien bidez lortu behar baita euskaldunen kopuruak atzera ez egitea, ondorengo aurrerapausoen aitzindari baitira. Beraz, talde hauetan sentiberatze jarduerak egin beharko dira euskararen ondorengoetaratzea bermatzeko. Familia osatu berria duten bikote euskaldunei begira erabilera areagotzeko ekintzak antolatu ditzake udalak euskaltegiarekin batera: ipuin-kontalariak, euskarazko jolasei buruzko ikastaroak, erakusketak, tailerrak, merkatuan haurrentzako dauden euskarazko produktuen berri ematea, irteerak, argitalpenak (kantu bildumak, ipuin bildumak, marrazki bizidunetako bideoak). Euskaldunen ehunekoa altua izanik, garrantzitsua izango da alor hau bereziki sustatzea, familia bidezko jarraipena izango baita etorkizunean herri hauetan euskara mantentzearen oinarrietako bat.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Aisialdia

Beste agente espezifikoko batzuk * URDAIBAI RUGBY ESKOLA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Urteroko ekintza dugu, hausnarketa egin ondoren egokiturik burutzen dena Urdaibai Rugby Eskola Elkartearekin sinaturiko hitzarmena bitarteko.

Adierazleak

* Partehartzaile-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
Kodea	1. c. 01/10

Izena

Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko

Deskripzioa

Haurrentzako zerbitzuak (urtebetetze-festetarako pailazoak, gabonetako parkeak, Txiki-parkeak, etxe komertzialetako jarduerak, ...) kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu, hizkuntza-paisaia egokitzeko, begirale edo/eta zaindari euskaldunak kontratatuz edo erdaldunak euskalduntzeko, hau da, euskararen erabilera egokia bermatzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Sinatzen diren hitzarmenen kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurraren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
Kodea	1. c. 01/004

Izena

Merkatuan dauden euskarazko produktuen zabalkundea egin.

Deskripzioa

Ez da ukatu behar norainoko eragina duten hedabideek jostailuen publizitatea egiterakoan eta hurrek erabiltzen dituzten jostailuek baldintzatzen dute gehienetan jolas-hizkuntza. Hargatik, premiazkoa da merkatuan dauden euskarazko produktuen zabalkunderako kanpainak egitea, familiaren muina ikutu eta jolas-hizkuntza euskara izan dadin baldintzak sortuz.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifikoko batzuk * UDAL ESKOLA KONTSEILUA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Urteroko kanpaina hau dela eta, 2008an hedatu egin da 16 urtera artekoentzat. Interesgarria litzateke Gabon sasoiaren ostean inkesta bat egitea sektorean, salmenta datuak ezagutu eta indizeak egokitzeko kanpainaren eragina neurtzearen.

Adierazleak

- * Hartzaile-kopurua
- * Saldutako produktuak guztira
- * Saldutako euskarazko produktuak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindaria, ...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
Kodea	1. c. 01/5

Izena

Haurrak izango dituzten bikoteei behar dituzten zerbitzuak eskaini (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa, ...)

Deskripzioa

Gurasogai diren bikoteentzat hainbat zerbitzu berezi jarri beharko lirateke martxan. Besteren artean, euskara txikitatik ikasteak dituen abantailak azpimarratu beharko lirateke, eta hori lortzeko eskura dauden zerbitzuak ezagutarazi: haurtzaindegiak, materiala, irakaskuntza ereduak, ...

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Gizarte Ongizate Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko batzuk * ANBULATORIOA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Eskura ipinitako zerbitzuen kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
Kodea	1. c. 01/12

Izena

Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...)

Deskripzioa

Euskararen jarraipena familia sortzen den unetik bermatzen lagunduko dituzten baliabideak eskaintzea beharrezkoa da. Horrela gurasoek haurrekin duten lehenengo komunikazio jarduerak euskaraz izateko laguntza eskaini behar da.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Euskaltegia
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Uda sasoiari urtero burutzen da Alkarbide bitartez, beste udalerririk askotako Euskara Zerbitzuekin batera.

Adierazleak

* Hartzaile-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	1 - Euskara ondorengoetaratzea
Esparrua	1. c - Familia
Neurria	1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
Kodea	1. c. 01/1

Izena

Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini

Deskripzioa

Udalak ezin ditu zerbitzu guztiak zuzenean kudeatu, baina askotan lagungarria izan daiteke hark informazioa erabiltzaileen eskura jartzea. Oraingo honetan, eta baita beste kasuetan ere, zerbitzua eskaintzea proposatzen da, haurrak zaintzeko prest dauden pertsonen zerrenda eginez, pertsona horien hizkuntza gaitasuna kontuan izanik. Udalak informazio hori bildu ondoren, zabaldu dezake, udaleko, herriko edo eskualdeko argitalpenetan, iragarki taulan, eskoletan, Interneten bidez, eta abar.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Ertaina

Oharrak Zaintzaileen zerrenda urte birik behin berriztatu eta urtero zabalkundea egiten da.

Adierazleak

* Zaintzaileen kopurua; informazio horren zabalkund

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 001 - Plan Estrategikoaren jarraipenerako eta balorazio orokorrerako balio izango duten hausnarketa-bilguneak, neurketak eta diagnosiak egiteko ekintza zehatzak jarri behar dira abian, beharizanen arabera eta urte bakoitzeko Kudeaketa Planetan txertatuz.
Kodea	2. a. 001/001

Izena

Urteko Kudeaketa Planerako lehentasuna duen neurketa/diagnostiko berezia egitea

Deskripzioa

Beharizanik egon ez delako ez, baina ohitura faltaz edo, kanpotik datozkigun neurketa/diagnostiko eskaintzei erantzunda burutzen izan ditugu orain arte. Beharrezkoa da urte bakoitzean finkatzea erabilerarekin lotutako lehentasunezko neurketak edo diagnostikoak egitea (auzo berezi batzuetako erabilera, ahozko akatsei buruzkoa,...)

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikokoak	* UDAL EUSKALTEGIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Euskara Batzordea
Beste agente espezifikoko batzuk	* GERNIKAKO AEK EUSKALTEGIA * SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

* ARTEZ ENPRESA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Neurketak emandako indizeak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 001 - Plan Estrategikoaren jarraipenerako eta balorazio orokorrerako balio izango duten hausnarketa-bilguneak, neurketak eta diagnosiak egiteko ekintza zehatzak jarri behar dira abian, beharizanen arabera eta urte bakoitzeko Kudeaketa Planetan txertatuz.
Kodea	2. a. 001/002

Izena

II. Plan Estrategikoa eta urte bakoitzeko Kudeaketa Planak eratzeko orduan gizarte eragileen ekarpenak jasotzeko protokoloa finkatu

Deskripzioa

I. Plan Estrategikoa eratzerakoan 2002-2003 epealdian egin zen arren, urte bakoitzeko Kudeaketa Planetarako ez da landu behar beste gizarte eragileen ekarpenak egitearena. Horixe litzateke Euskara Batzordea motibatuzeko modu bat eta Plan Estrategikoari zor zaion malgutasuna lantzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* TALDE ERAGILEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Euskara Batzordea
Beste agente espezifiko batzuk	* Batzorde Eragilea

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Urtea bakoitzean jasotako ekarpenak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/1

Izena

Agintariak ere programa hauetan inplikatu, Administrazioko Erabilera Planerako Talde Eragilean parte hartuz.

Deskripzioa

Langileak euskalduntzeko prozesuan sartu behar dira. Hala ere, politikarien laguntza ere beharrezkoa da, konplizitate mailan besterik ez bada ere. Horrela, agintari politikoek bideratu beharko dute sail ezberdinetan euskararen presentzia handiagoa izatea, azken finean beraiek baitira arduradunak. Era berean, erdaldunei euskalduntze-prozesuan sartzeko animatu egin behar da eta euskara ikasteko dauden aukerei buruzko informazioa eman. Sarritan gertatzen da sail bateko arduradun politikoak euskara ez jakiteak arras baldintzatzen duela sail horretarako lan hizkuntza, azkenean dena gaztelaniaz eman behar baitzaio. Beraz, arduradun politikoaren jarrera erabakigarria izan daiteke arlo honetan.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Giza baliabideak
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Euskaltegia

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Honetarako bidea, Administrazioako Erabilera Planean aintzat hartuta dagoen Talde Eragilea dugu, beraz delako udaleko agintari politiko eta euskara teknikarien bilgunea.

Adierazleak

* Talde Eragileak izandako bilkura kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/2

Izena

Dirulaguntzak banatzeko deialdietarako ezarrita dauden hizkuntza-irizpideak zehaztu Administrazioko hurrengo Erabilera Planean.

Deskripzioa

Udalerriko hainbat erakunde eta eragilek udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzte beren zereginak egiteko. Komenigarria litzateke dirulaguntza hauek emateko ere hizkuntza irizpideak ezartzea. Era berean, gauza ona litzateke udaleko zerbitzu guztiek ere irizpide hauek kontuan izatea eta beti ere irizpide finkoak izatea. Hizkuntza-irizpide gisa, dirulaguntza deialdi guztietan diruz lagundutako programa edo jardueraren ondorioz sortutako materialetan, egitarauetan, karteletan, testuetan, komunikazioetan eta agirietan euskara ere erabili beharra ezar daiteke. Hizkuntza merezimendu gisa baloratzeko, dirulaguntza esleitzeko balorazio-irizpideen artean euskararen erabilera egon behar du, irizpide horren kuantifikazioa portzentajeetan jarrita, gainerako balorazio irizpideen modu berean. Bestalde, ezarritako irizpideen jarraipena egiteko bideak abian jartzea ere komeni da.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Sail guztiak
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifikoko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Hizkuntza-irizpideak ezarritako deialdien kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/003

Izena

Udalaren Administrazio-kontratu mota desberdinetako Baldintza Pleguetan hizkuntza irizpideak jasotzeko protokoloa finkatzea.

Deskripzioa

Nahiz eta hizkuntza irizpideak finkatuta egon Udal administrazioko kontratu desberdinak gauzatzeko prozesuetan, hau da, dagokien Baldintza Pleguan jasotzekoak, beharrezkoa da hori guztia nola gauzatu den eta gauzatzen den kontrolatzeko protokolo bat onartzea.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Gobernu Batzordea * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* KONTRATAZIO-MAHAIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	-
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Protokoloa aplikatutako kontratuen kop.

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/3

Izena

Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eta prestakuntza eskaini

Deskripzioa

Herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko eta euskara ere lan hizkuntza izan dadin, oso garrantzitsua da euskararen inguruko lan tresnak eskura izatea, bertako sorkuntzan euskarari dagokion lekua emateko. Horretarako, langileei dauden baliabideen berri eman behar zaie eta baliabide horiek erabiltzeko laguntza eskaini behar zaie. Horrela, interneten dauden baliabideak langileen eskura jarri behar dira. Besteak beste, www.euskadi.net/euskara helbidean hiztegiak, zuzentzaile ortografikoa, Euskalterm banku terminologikorako sarbidea eskuragarri daude; www.ivap.es helbidean, berriz, agirien ereduak, administrazioko hizkerari buruzko argibideak eta bestelakoak aurkituko ditu langileak.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	<ul style="list-style-type: none"> * Euskara Zerbitzua * Giza baliabideak * Udal Euskaltegia
Udal agente espezifikokoak	<ul style="list-style-type: none"> * TALDE ERAGILEA * UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Euskaltea

Beste agente espezifiko batzuk * GERNIKAKO AEK EUSKALTEGIA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Zabaldutako materiala

* Ikastaldeetan aritutako udal langileak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/5

Izena

Udalan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2009-2012 eperako plan berria tajutu, onartu eta garatu.

Deskripzioa

Legez, 86/1997 Dekretuak dioenez, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu beharra dago. Ekintza honen helburua euskararen ezaguera zein zerbitzutan eta zein mailatan behar den jakinaraztea da. Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioak definitzen du prozesu honen helburua eta eman beharreko pausoak. Indizea %70etik %100era bitartekoa den kasuetan, akordioan finkatzen den modura, administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio atal elebidunak ezarri beharko dira. Era berean, administrazio atal elebidunak ezarriko dira gizarte izaera eta izaera orokorreko ataletan eta euskarazko administrazio atalak jarriko dira, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Alkatetza * Gobernu Batzordea
Udal agente espezifikoak	* TALDE ERAGILEA * UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko
batzuk -**Beste datu batzuk**

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Urte bakoitzean inplementatutako ekintza kop

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/7

Izena

Euskararen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren betetze-maila aztertu eta egungo egoerara egokitu.

Deskripzioa

Gernika-Lumon euskararen erabilera publikoa arautzen duen ordenantza 1990an onartu zen. Ordenantza horretan finkatu ziren hizkuntza jokabide izan behar ziren udaletxearen eraginaren mende zeuden hornikuntza, enpresa, kaleko mezua eta gisakoei dagokienez. Beraz, ordua da ordenantza horiek noraino bete diren neurtzeko eta egungo egoeraren arabera egokipenak egiteko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Gobernu Batzordea * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Aisialdia * Euskara Batzordea
------------------------------	------------------------------------

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak -

Adierazleak

* Ordenantzaren betetze-maila

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/8

Izena

Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri

Deskripzioa

Zerbitzua kudeatzen duenak erabiltzaileak hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahal izatea bermatuko du. Horrela, Administrazioa Klausula Partikularren pleguetan, baldintza hauek txerta daitezke: 1. - Kontratatik herritarren hizkuntza-eskubideak betez egin beharko du kontratuaren xede den zerbitzua. 2. - Kontratatik euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko ditu inprimakiak, abisuak eta publikoarentzako jakinarazpenak. 3. - Betebehar horiek bete ezean edo baldintza teknikoen pleguan eskatutako hizkuntza-gaikuntzadun langileak jarri ezean dagokion zerbitzua betetzeko kalte-ordainak ordaindu beharra ekarriko du eta, hala badagokio, kontratua deuseztatzea. Zerbitzuen kontratuen baldintza teknikoen pleguetan, hizkuntz irizpide hauek txerta daitezke: a) mantenimendu eta garbiketarako kontratuetan, oharrak seinalizazioak eta errotulazioa euskaraz eta gaztelaniaz egiteko konpromisoa; b) aseguru-zerbitzuen eta banku-zerbitzuen kontratazioetan, euskararen erabilera merezimendu izango da eskaintako zerbitzuetan; c) informatika programen kontratuetan, euskaraz eta gaztelaniaz egongo direla jasoko da.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Gobernu Batzordea * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* KONTRATAZIO-MAHAIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Administrazioko erabilera Plan berrian finkatuko dira Baldintza Pleguetarako hizkuntza irizpide zehatzagoak

Adierazleak

* Hizk-irizpideak zerbitzu kontratuetan 2009an

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/9

Izena

Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri

Deskripzioa

Langileak kontratatzerakoan, lanpostuak ezarrita duen hizkuntza eskakizuna betetzen dela bermatu behar da; kontratuaren xedea betetzeak erabiltzaileekin edo publikoarekin orokorrean zuzeneko harremana izatea badakar, administrazioak bermatu beharko du zerbitzuaren erabiltzaileak hautatutako hizkuntza ofizialean aritu ahal izatea. Horrela, kontratatzen den langilea udaleko lanpostu zerrendan ez dagoen lanpostu baterako edo zerbitzu berezia eskaintzeko baldin bada (aldi baterako kontratua, adibidez), gainontzeko zerbitzuekin egiten den bezala, hizkuntza irizpideak zehaztu behar dira.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Gobernu Batzordea * Giza baliabideak * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifikoko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Urteroko Plantila Organikoan ezartzen dira hizkuntza eskakizun berriak lanpostu berrietarako. Kontratazioak aldi baterakoak direnean izaten da arazoa; Euskara Zerbitzuak euren berri izan beharko luke eta kontratazio prozesuan parte hartu.

Adierazleak

* Hizkuntza-irizpideak finkatutako kontratuen kopuru

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/10

Izena

Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri

Deskripzioa

Zerbitzua kudeatzen duen enpresak erabiltzaileak hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahal izatea bermatuko du. Horretarako, Administrazioa Klausula Partikularren pleguetan, honako baldintza hauek txerta daitezke: 1. - Kontratistak herritarren hizkuntza-eskubideak betez egin beharko du kontratuaren xede den zerbitzua. 2. - Kontratistak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko ditu inprimakiak, abisuak eta publikoarentzako jakinarazpen guztiak. 3. - Betebehar horiek bete ezean edo baldintza teknikoek pleguan eskatutako hizkuntza-gaikuntzadun langileak jarri ezean dagokion zerbitzua betetzeko kalte-ordainak ordaindu beharra ekarriko du eta, hala badagokio, kontratua deuseztatzea. Bestetik, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuen baldintza teknikoek pleguetan, honako hizkuntz irizpideok txerta daitezke: a) esleipena jaso duenak zerbitzua euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaintzeko konpromisoa hartuko du; b) Horrek ekarriko du errotulazioa, oharrak, seinalizazioak eta gainerako ekintzak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharra.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Gobernu Batzordea * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* KONTRATAZIO-MAHAIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Administrazioko Erabilera Plan berrian ezarriko dira Baldintza Pleguetarako hizkuntza irizpide zehatzak.

Adierazleak

* Urteko kontratu kopurua / hizk-irizp. kontrat. kop

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/11

Izena

Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri

Deskripzioa

Zerbitzua kudeatzen duen enpresak erabiltzaileak hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahal izatea bermatu beharko du. Horrela, Klausula Partikularren pleguetan, baldintza hauek txerta daitezke: 1. Kontratistak herritarren hizkuntza-eskubideak betez egin beharko du kontratuaren xede den zerbitzua. 2. Kontratistak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko ditu inprimakiak, abisuak eta publikoarentzako jakinarazpen guztiak. 3. Betebeharrak bete ezean edo baldintza teknikoen pleguan eskatutako hizkuntza-gaikuntzadun langileak jarri ezean dagokion zerbitzua betetzeko kalte-ordainak ordaindu beharra ekarriko du eta, hala badagokio, kontratua deuseztatzea. Bestetik, hornikuntza kontratuen baldintza teknikoen pleguetan, hizkuntz irizpide hauek txerta daitezke: a) Kontratazioaren objektua den materialak edo tresneriak duen testua, errotuluak edo argibideak, euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira; b) Ordenadoreen, inprimagailuen edo fotokopiagailuen hornikuntza izanez gero, prestatuta egon beharko dute euskaraz eta gaztelaniaz lan egiteko edo ohar eta argibideak bi hizkuntzotan emateko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Gobernu Batzordea * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	* KONTRATAZIO-MAHAIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk -

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Administrazioko Erabilera Plan berrian ezarriko dira Baldintza Pleguetarako hizkuntza irizpideak

Adierazleak

* Urteko kontratu kop/hizk. irizpideak kontratu kop

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
Esparrua	2. a - Administrazioa
Neurria	2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
Kodea	2. a. 01/12

Izena

Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu

Deskripzioa

Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen inguruko ekimena koordinatu, antolatu eta zuzendu behar du. Dena dela, lanaren esparruak zehaztu behar dira, eta zerbitzu horrek izan behar dituen helburu eta baliabideak definitu. Zerbitzu horren betebeharren artean egongo litzateke, besteren artean, barne plangintzak prestatzea, eta baita udalerrian euskararen sustapenerako ekimenak burutzea ere.

Udal agenteak

Irakurzaletasuna bultzatzeko berariazko ekintzak antolatu behar dira, hala nola, literatur sariak, irakurketa-tailerrak, idazleekin solasaldiak edo hitzaldiak, ipuin-kontalariak... Eginkizun horiek udalaren menpeko kultur guneetan antolatuko dira, hala nola, kultur etxean, liburutegian, ludotekan. Horretaz gain, ikastetxeen lana erabakigarria izango da, bertan ematen baitute haur eta gazteek denborarik gehien. Beste alde batetik, ekintzak eta horien emaitzak gizartean nolabaiteko oihartzuna izatea ere komeni da, herriko komunikabideak aukera ezin hobea dira horretarako Lehiaketetara aurkeztutako lanak edo irabazleen lanak bilduma batean argitaratu edo komunikabideetan argitara daitezke edo komunikabideen bidez zabaldu. Eskualdeko udalerrien elkarlana bideratu beharko litzateke horrelako ekintzei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Hezkuntza Saila
Udal agente espezifikoak	* BERRITZEGUNEA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Ikastetxea
* Euskara Batzordea

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen den eskolaz-kanpoko egitarauan barne, Idazlan kuadernoaren egitasmoa daukagu: urtero bi argitalpen -LHkoena eta DBHkoena- eta bi irakurketa ekitaldi ikastetxe guztien partaidetzarekin.

Adierazleak

* Ikastetxeekin batera eratutako ekintzak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. c - Liburugintza
Neurria	3. c. 04 - Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarten artean.
Kodea	3. c. 04/1

Izena

Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (Eusko Ikaskuntza, idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu

Deskripzioa

Euskal literatura herritarrengana hurbiltzeko asmoz, literaturaren inguruko sektore estrategikoekin (Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Editoreen Elkarte, EIZIE, Bertsolarien elkarte) ekintzak bideratu ditzake udalak. Ekintza horiek ikastetxeetan edo udaleko kultur guneeetan (liburutegiak, kultur etxeak, ludotekak) antola daitezke. Honako ekintza hauek proposatzen ditugu: hitzaldiak, idazmen eta irakurketa-tailerrak, idazleekin solasaldiak, elkarrizketak , mahai-inguruak, ipuin-kontalariak, liburu-sinadurak Ekintza hauek adin-tarte ezberdinei egokituko dira. Ekintza hauek gauzatzeko inguruko udalerrien elkarlana bideratzea garrantzitsua izango da. Euskal literaturaren zaletasuna suspertzeko antolatutako jarduerak haur eta gazteei ez ezik, helduei ere zuzenduko zaizkie.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila * Gazteria Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Euskararen alorreko elkarteak
* Elkargo profesionala

Beste agente espezifikoko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Urte askotan dihardugu Jean Francois Saure editorearekin komikiak argitaratzen; bestalde, Eusko Ikaskuntzarekin urtero berriztatzen den hitzarmenari lotuta dago urte bakoitzeko argiralpen bat.

Adierazleak

- * Burututako diru kopurua
- * Urtean zehar argitaratutakoak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. c - Liburugintza
Neurria	3. c. 04 - Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarteen artean.
Kodea	3. c. 04/002

Izena

Udalerriko ohitura, historia eta gertaerei buruzko argitalpen-bilduma gorpuztu

Deskripzioa

Aspaldiko asmoa dugu esparru honetan egin beharreko hau. Orain arte argitaratutakoak kanpotik etorritako eskabideen arabera izan dira gehien bat, baina beharrezkoa dugu udalerriko historia eta usadioei buruzko informazioan ditugun hutsuneak identifikatu eta betetzeko bideak jorratzea.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	-
Beste agente espezifiko batzuk	* GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Urtean landutako gaiak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. f - Publizitatea
Neurria	3. f. 01 - Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako `inertzia?', `errentagarritasun eza?' eta `konnotazio negatiboak?' neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.
Kodea	3. f. 01/001

Izena

Publizitatea euskaraz egitearen alde, udalerrri mailako komunikabideekin planteamendu orokor bat lantzea.

Deskripzioa

Udalerrri mailako enpresa txikiek, merkatariak eta profesionalek, publizitatea hurbileko inguruan egitea interesatzen zaie batik bat. Beraz, interesagarria litzateke udalerrriko euskarazko komunikabideekin elkarlanean publizitatea euskaraz areagotzeko plan orokor bat diseinatzea, guztien artean interesatuei eskaintza bereziak eginik. Euskaraz egiteaz gain, eskaintza horrek merkatal balio erantsia eskaini beharko luke, balio erantsi ekonomikoa lukeena.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikokoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Merkatal elkarteak

	* Enpresa mundua
	* Komunikabideak
Beste agente espezifikoko batzuk	* ARTEZ ENPRESA
	* BAGABIZ ALDIZKARIA
	* OIZ-MENDI TELEBISTA
	* BUSTURIALDEKO HITZA
	* ALDABA ALDIZKARIA

Beste datu batzuk

Lehentasuna	Erabatekoa
Oharrak	-

Adierazleak

- * Ekintza-kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. f - Publizitatea
Neurria	3. f. 01 - Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako `inertzia?', `errentagarritasun eza?' eta `konnotazio negatiboak?' neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.
Kodea	3. f. 01/1

Izena

Publizitatea euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egin sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkarte, ostalarien elkarte,...)

Deskripzioa

Oraindik orain, nabaria da erdaraz egindako publizitatea gailentzen dena enpresa, merkataritza, ostalaritza eta beste hainbat eta hainbat alorretan. Dena den, euskaraz dakien publikoa gehitzen den neurrian euskarazko publizitatea ere errentagarriagoa izaten hasia da eta udalaren zereginetako bat da euskarazko publizitateari bultzada ematea. Horretarako, publizitatea euskaraz egitearen aldeko sustapen-lana egin beharko du udalak. Sentsibilizazio-lan horretan sektoreetako eragileengan eragin beharko da eta ikustarazi beharko zaie euskaraz ere iragartzeak balio erantsia eskaintzen diola saldu beharreko produktuari. Bereziki, badira produktu jakin batzuk bezero euskaldunen presentzia nabarmena edo garrantzitsua dutenak. Produktu horien zerrenda prestatu eta elkarte edo enpresa horiengan eragin beharko litzateke aurrena.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Ekonomia Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Elkargo profesionala
* Merkatal elkarteak

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Merkaritza Kanpainaren osagai bat dugu eta modu pertsonalean lantzen da sentsibilizazioa; laguntza zerbitzu iraunkorraren bitartez. Merkataritzako Berripapera urtean birritan buzoneatzen da, publizitatea euskaraz egitearen motibazioa lantzea helburu.

Adierazleak

* Egindako sentsibilizazio-ekintzen kopurua

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. f - Publizitatea
Neurria	3. f. 02 - Herri-erakundeak euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.
Kodea	3. f. 02/1

Izena

Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman

Deskripzioa

Euskarazko publizitatea gero eta zabaldua dagoen arren merkatuan oraindik bide luzea du egiteko eta enpresa eta elkarte ugari dira bere publizitatea erdara hutsean egiten dutenak. Udalak bere aldetik laguntza teknikoa eskaini diezaieke euskaraz publizitatea egin nahi duten enpresa eta herritarrei komunikabideetan iragarkiak euskaraz agertzeko (itzulpenak, etxeetara bidaltzen diren esku-orriak euskaratzea, eredu batzuk eskaintzea, aholkularitza). Euskarazko publizitatearen oihartzun komertziala gaztelaniarena baino ahulagoa izaki, iragarpenak euskaraz egiten dituzten enpresei nolabaiteko konpentsazioa (laguntza teknikoaren bidez, sariak eta lehiaketak antolatuz, iragarkiak euskaraz egiten dituztenen berri zabalduz) eman dakieke. Komunikabideak aipatzen ditugunean, zabalkunde handiko komunikabideez ez ezik, herriko eta eskualdeko komunikabideez ere badihardugu. Izan ere, udalaren ahaleginak komunikabide horietan egiten diren iragarkietan euskararen erabilera bultzatzera bideratu beharko dira, bereziki.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Ekonomia Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Enpresa

Beste agente espezifikoko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Merkataritza eta enpresetako kanpainan itzulpen zerbitzua eskaintzen da denetarako, publizitatea egitea barne. Bat datoz ekintza honekin hurrengoak: 2. d. 01/1, 2. d. 01/9 eta 2. a. 04/5

Adierazleak

* Emandako laguntza eta itzulitako nahiz zuzendutako

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 01 - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.
Kodea	3. g. 01/1

Izena

Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea

Deskripzioa

Haur eta gazteen kultur kontsumoa oso bestelakoa da aurreko garaiekin alderatuta. Ikus-entzunezkoen presentzia, adibidez, erabatekoa da, eta teknologiena nabarmendu da, batez ere, orain. Hori dela eta, egokitzapen prozesuari ekin behar dio udalak, tresneriari dagokionean eskakizunei erantzun ahal izateko. Udalak beharrak aztertu ondoren, haur eta gazteen eskura ipini beharko ditu material horiek (joko elektronikoak, ipuin interaktiboak) udal liburutegietan, ludoteketan hau da, haur eta gazteek erabiltzen dituzten eremuetan.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Hezkuntza Saila * Kultura Saila * Gazteria Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Kultur Etxea

* Liburutegia

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Honetan inplikaturik dauden zerbitzuak: liburutegia, gaztelekua. Ekintza gauzatzeko baliabideak: web orria, liburutegiko euskarazko eskaintzaren katalogoa, gaztelekua dinamizatzeko baliabideak, Gazte Planaren implementazioa.

Adierazleak

* Eskura jarritako materialen kopurua eta izaera, et

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 01 - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.
Kodea	3. g. 01/2

Izena

Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu

Deskripzioa

Kulturgintzaren alorrean, herritarrei eskaintzen zaizkien ekitaldietan, eragile ugari parte hartzen du (kultur taldeak, kultur ekoizleak, aisialdi taldeak, ikastetxeak, udala...) Eragile hauen arteko elkarlana garrantzitsua da, ahalik eta eskaintza bateratuena egiteko. Kultur eragileen inplikazioa zaindu behar da, haien laguntza-bidea finkatu, ardurak banatu... Koordinazio-gune horri esker, udalerriko kultur eskaintzaren hutsuneak betetzeko eta indarguneak sendotzeko proiektu bateratuak bultzatuko dira. Lankidetzaren horrek adin-tarte eta interes ezberdinen beharrei erantzutea erraztuko du. Ahaleginen sinergia eta optimizazioa lortu behar da herriko elkarten artean (horren osagarri moduan, ikus Euskara Batzordearen osaera) Haurrak eta gazteak egon ohi diren tokiak aproposak dira kulturgintzako ekintzak garatzeko (ludotekak, kultur etxeak, gizarte-etxeak, liburutegiak...). Hainbat kultur eragileen laguntzarekin auzoetara iristeko ahalmena erraztuko duela.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila * Hezkuntza Saila
Udal agente espezifikoak	* UDAL EUSKALTEGIA

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Ikastetxea

* Aisialdia

* Kultur taldea

Beste agente espezifiko batzuk

* UDAL ESKOLA KONTSEILUA

* JAI BATZORDEA

* BERBALAGUN EGITASMOA

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Hiru bilgunek egiten dute bideragarri honakoa: Udal Eskola Kontseiluak, Jai Batzordeak eta Berbalaguneko Talde Eragileak.

Adierazleak

* Ikastetxeekin batera ekintzak

* Euskaltegiekin batera ekintzak

* Elkarteeekin batera ekintzak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 03 - Kulturgintza: Euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu.
Kodea	3. g. 03/1

Izena

Euskaraz ulermena soilik duen publikoa erakartzeko ikuskizun bereziak eskaini

Deskripzioa

Euskal kultur ekintzetara ahalik eta jende gehien bildu behar da, eta publiko berria erakarri. Ikus-entzule berriak biltzerakoan kontuan hartuko dira euskaraz hitz egiteko zailtasunak izan arren, euskaraz ulertzeko gai badirenak. Euskaldun mota horretan datza euskarazko ekitaldien publikoa zabaltzeko giltza. Hori dela eta, euskarazko kultur produkzioari, balio erantsia eman beharra dago, gaztelaniazko kultur produkzioak eskaintzen ez duena, euskarazkoak bete beharko luke. Euskaraz bakarrik jaso daitekeen kultur adierazpena desiragarri egiten ahalegindu behar dugu. Horretarako, euskarazko kultur ekitaldien berri eman behar dugu, euskaldunei bezala erdaldunei, komunikabide erdaldunak zein euskaldunak erabiliz. Ezagutarazi nahi den ekintza edo produktua euskarazkoa izanda ere, saiatu beharra dago horri buruzko informazioa euskaraz ez dakiten biztanleei ere helarazten, bertaratu daitezen animatuz: komunikabideen bidez, etxeetara informazioa bidaliz, eskuko orriak banatuz, kartelen bidez... Publiko hori euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroetan biltzen da maiz. Hori dela eta, euskaltegiekin hitzarmenak sina ditzake udalak euskarazko kultur ekitaldietarako ikasle-taldeei beherapenen bat eskaintzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikokoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Komunikabideak

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Ertaina

Oharrak Kultur programazioa eratzekoan, aintzat eduki behar da ekintza honen helburua eta ikuskizun neutroak eskaini, euskaldunak eta ia euskaldunak erakartzeko gaitasuna dutenak (mimika bitarteko, euskara ulertterraza baliatzen duten ikuskizunak,..).

Adierazleak

* Ulermena soilik dutenentzat ekintza aproposak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 04 - Kulturgintza: Administrazio guztien arteko loturak sendotu.
Kodea	3. g. 04/1

Izena

Inguruko herriein kultur zirkuituak antolatu eta goi erakundeek antolatzen dituzten zirkuitoetan ere parte hartu

Deskripzioa

Euskarazko ekitaldi, ikuskizun eta emanaldien programaketa bermatzeko eta horrek dakartzan gastuei aurre egiteko nahiz sarrerak gehitzeko, udalen arteko lankidetzak sustatzea mesedegarria izango litzateke, indarrak batzea denentzat, eta bereziki euskalgintzarentzat, gerta baitaiteke onuragarri. Udalek bere menpeko azpiegiturak eskainiko ditu euskalgintzarako programazio jarraitua finkatu eta indartzeko. Horren harira, herriarteko zirkuituaren ideia zabaltzea oso ekimen onuragarria izan daiteke euskal kultur ekoizpenentzat. Administrazioak baliabideak jarri behar ditu, euskarazko kultur jardunak aurki ditzakeen oztopoak gainditzeko bideak zabalduz. Horretarako, kultura sortzen duten profesionalekin batera lan egin beharko du, haiekin koordinatuz, lankidetzak bilatuz eta kultur jardunaren markoak antolatuz. Udalerrien arteko koordinazio horren bitartez, komunikabideetan lortu beharreko oihartzuna areagotu egingo litzateke bidez batez.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Kultura Saila * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Kultura-ekoizleak
* Kultur Etxea

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Kultur Etxea Fundazioak parte hartzen du Euskadiko Antzoki sarearen urteroko zirkuitoan eta inguruko herriekin ere (Bermeo, Zornotza, Galdakao, Mungia,...) hor egiten du topo.

Adierazleak

* Antolatutako emanaldien kopurua zirkuituaren barru

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/2

Izena

Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira

Deskripzioa

Eginkizunak urtean zehar banatzeak garrantzi handia du, era horretara hobeto egin baitaiteke epe ertaineko planifikazioa, bai taldeen aldetik, beren lanak planifikatuz, bai udalaren zerbitzuen aldetik ere. Urtero aurreikus daitezkeen ekintzetariko batzuk: Euskal Astea, Kultura Astea Horretaz gain, urteko plangintzaren barruan euskal kulturari eta tradizioari lotutako jaiek eta ospakizunek ere leku berezia izan beharko dute euskara eta kultura uztartzeko helburuaz, hala nola, Santa Ageda edota Olentzero Ekintzak gauzatzekoan gizarte eragileen partaidetza funtsezkoa izango da. Kultur ikuskizun eta emanaldiak (kontzertuak, antzerkia, erakusketak, bertso saioak) aldizkakotasun jarraituarekin programatuko ditu udalak indartzeko xedez eta hiritarengan euskarazko kultur eskaintzetan parte hartzeko ohiturak finkatu eta sendotzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Kultura Saila * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Kultur Etxea
* Kultur taldea

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Azken urteetako ibilbideak horretarako oinarriak finkatu dituen arren, interesgarria litzateke Kultur Etxeko Estatutuen arabera sortu beharreko Kultura Kontseiluaren bitartez elkarteak zeregin honetan inplikatzeari.

Adierazleak

- * Euskarazko ikuskizunaren aldikotasuna
- * Euskarazko ikuskizunaren portzentaia

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/5

Izena

Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu

Deskripzioa

Herrian antolatzen diren jaietan euskararen presentzia indartu egin behar da ahal den neurrian, kontuan izanik biztanle guztiengana iristen direla ekimen horiek. Bi motatako kultur jardun bereiziko ditugu: hitza erabiltzen dutenak (literatura, antzerkia, zinema, bertsoak, musika, etab.) eta ez dutenak (arteak, musika instrumentala, dantza, etab). Hitza erabiltzen dutenen kasuan, kultur jarduna euskaraz ere izan dadin ahalegindu beharko da udala eta besteetan, euskara lan eta informazio hizkuntza izan dadin saiatu. Ekitaldi guzti hauetan udalak euskararen presentzia bermatu beharko du, bereziki, programa edo jardueraren ondorioz sortutako materialetan, egitarauetan, karteletan, testuetan, komunikazioetan, agirietan eta ikus-entzunezko mezuetan.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Elkarreak

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Jai Batzorde bilgune, ziurtatu egin behar da urtean zehar burutzen diren egitarauetan hizkuntza irizpideak betetzea. Kultur programazioan beste horrenbeste, baina ez dago Kultur bilgunerik sortuta (Kultur Etxeko estatutuetan aintzat hartuta dagoen arren).

Adierazleak

* Euskara erabili izan den ekitaldien kopurua; euska

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/6

Izena

Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri

Deskripzioa

Udaletxeak sarritan izaten ditu hainbat talderentzat egokiak izan daitezkeen tokiak eta azpiegiturak. Izan ere, lokalen arazoa da talde hauek duten arazorik larrienetako bat, eta horretan egin dezake lan udalak.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Kultura Saila * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Kulturgintza * Kultur Etxea
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Diruzko baliabideak bi lekutik doaz: Kultur Etxetik orokorrean eta Euskara Zerbitzutik euskararen sustapenari gagozkionean. Azpiegiturari dagokionean, Kultur Etxeak eta Udalak dituenekin jokutzen da -lokalak, aretoak, ekitaldietarakoak,... -.

Adierazleak

* Euskal kulturgintzako taldeen kopurua

* Euskal kulturgintzako taldeak udal lokaletan

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/1

Izena

Kultur jarduerak sortarazten duten materialaren itzulpenak egiteko laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

Deskripzioa

Kultur taldeek nahikoa baliabide urriak izan ohi dituzte. Hainbat kasutan, materiala euskaldundu behar dutenean ez dute izaten horretarako baliabiderik. Hori dela eta, udalak kultur elkarteak beraien materiala euskaratzeko edota euskaraz sortzeko laguntza ezarriko du. Horretarako sariak, lehiaketak zein beka antola ditzake. Emandako laguntzak diruzkoak edo teknikoak izan daitezke. Euskaratutako materiala kultur elkarten artean zabaltzeko ardura hartu behar du udalak, egindako lana optimizatzeari begira.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Kultur taldea
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Aisiaren esparruarekin lotuta, kultur elkarrekin hitzarmengintza landuko da eta eskaini beharreko zerbitzu iraunkorrean aintzat hartuta dago honako ekintzakoa.

Adierazleak

* Emandako laguntza (itzulpen,... kopurua)

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/002

Izena

Udalerriko Kultura Plan bat eratzea sustatu eta euskararen erabilerarako hizkuntza irizpideak txertatu.

Deskripzioa

Udalerrri gehienetan, esparru zehatz eta garrantzitsu batzuetako Plan Estrategikoak eratzea arrunta da gaur egun (inmigrazioa, genero kontua, industria, euskara,...). Gure udalerrian egiteke dago Kultura Plana eta arlo horretan ekitea asko erraztuko litzaioke Euskara Sailari plan hori eginda balego. Beraz, bultzatu egin behar dugu plangintza hori egin izan dadin, bai kulturaren zein euskararen normalizazioaren ikuspuntutik tresna ezin hobea litzatekeelako.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Kultur Etxea * Kultura-elkartea
------------------------------	--------------------------------------

* Euskara Batzordea

Beste agente espezifiko
batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak -

Adierazleak

* Kultura Plana eratzeko ekimenak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/7

Izena

Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea

Deskripzioa

Udalak ahalegin berezia egin beharko du euskal kultur produkzioa zabaltzen eta ezagutarazten. Udalak urtean zehar euskarazko ikuskizunak (zinea, antzerkia, erakusketak, kontzertuak, kale ikuskizunak) eskainiko ditu jarraipen eta aldizkakotasun jakin batean. Horretarako, merkatuan eta karteldegian unean dauden euskal ekoizpen ospetsuenak eta estimatuenak kultur programazioan eskaintzeko ahalegina egingo du udalak eta eskura dituen komunikabideen bitartez horren berri eman. Horretarako, udalak euskaraz sortutako ekoizpenen berri emateko eskura dituen azpiegiturak eskainiko ditu, antzokiak, zineak, kultur aretoak, erakusketa-gelak Euskal kultur produkzioa areagotzea, zabaltzea eta ezagutaraztea helburu dituzten ekimen pribatuko kultur gunerik edo topagunerik balego udalak lagundu eta bultzatuko ditu. Horretaz gain, gune horren indarra eta ekimenaz balia zitekeen udala kultur plangintza osatu eta gauzatzeko.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Kultura-ekoizleak
* Kultur taldea

Beste agente espezifiko batzuk -

Beste datu batzuk

Lehentasuna Altua

Oharrak Ekintza honen helburua aisiaren esparruan aintzat hartutako hitzarmengintzaren bitartez burutuko da eta Udalaren web orriak eskaintzen dituen aukerak ere kontuan hartuz.

Adierazleak

* Kultur produkzioak ezagutarazteko egindako ekimene

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. g - Kulturgintza
Neurria	3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.
Kodea	3. g. 05/4

Izena

Herrian dauden kultur talde desberdinak eta hauen lana ezagutarazi

Deskripzioa

Euskararen munduan dauden taldeen berri ematea litzateke ekintza honen zeregina. Horretarako herrietako komunikabideetan talde horien izenak eta edukiak zabaltzea beharko dira. Kontuan izanik herri mailako talde kulturalak direla, tokian tokiko medioak erabil daitezke horretarako. Komunikabideetan talde horien lana ezagutarazteko bidea herri edo eskualde mailako kultur sortzaileen sariak antola ditzake udalak literatura, musika, bideo, kazetaritza, eta antzerkigintzaren inguruan. Herriko kultur talde eta sortzaileen berri emango duen direktorioa edo zerrenda argitaratu dezake udalak.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Komunikabideak
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Ertaina

Oharrak Ekintza hau 3. g. 05/1 ekintzako hitzarmengintzarekin lotuta dago eta web orriaren agitasmoarekin -2. c. 06/3- elkarrekin loturak izan ditzaten. Honen inguruan, kultur taldeen katalogoa edo direktorioa prestatu behar da, uneoro gaurkotzeko aukera izanik.

Adierazleak

* Kultur jarduerak ezagutarazteko ekintzen kopurua e

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. h - Hedabideak
Neurria	3. b. 01 - Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.
Kodea	3. b. 01/1

Izena

Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea

Deskripzioa

Hizkuntza-ondarea gal ez dadin batetik, eta bestetik irakurle eta ikus-entzuleek hizkuntza bizia har dezaten komunikabideen bitartez, Udalak tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultza eta sari dezake, dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartuz.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Komunikabideak
Beste agente espezifiko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Orain arte, euskalkiaren erabilera bultzatzeaz arduratu izan bagara normalizaziorako tresna garrantzitsua zelakoan, ordua da erabilera horren kalitateaz ardura izateko garaia. Bagabiz aldizkariarekin hitzarmen bat finkatu beharko helburu hori bete dadin.

Adierazleak

* Bizkaieraren erabilera zuzenerako ekimenak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. h - Hedabideak
Neurria	3. b. 01 - Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.
Kodea	3. b. 01/2

Izena

Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu

Deskripzioa

Herriko komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi- eta kirol ekitaldien berri emateko eta dinamizatzeko tresna gisa erabiliko dira. Horrela, udalak bidera dezake herriko hainbat ekintzatan bertako komunikabideek nolabaiteko protagonismoa izatea. Bide egokia izan daiteke erabat bailara mailako informazioa eta udalak berak herritarrei igorri beharreko informazioa zabaltzeko ere. Bertako komunikabideak entzun eta ikusteko joeraren bultzagarri izan daiteke hori, baliabide hauen errentagarritasuna bultzatu eta edukiak bermatuz.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Kultura Saila * Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Komunikabideak

Beste agente espezifiko
batzuk

- * BAGABIZ ALDIZKARIA
- * BUSTURIALDEKO HITZA
- * OIZ-MENDI TELEBISTA
- * ALDABA ALDIZKARIA

Beste datu batzuk

Lehentasuna

Erabatekoa

Oharrak

Garrantzitsua da hedabideak ere partaide izatea eta, horretarako, Kultura Planaren magalean sortu beharreko kultura bilguneak eurak ere partaide izatea, ekintza honen helburua gauzatzeko lagungarri.

Adierazleak

- * Komunikabideak partaide izatearren ekimenak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. h - Hedabideak
Neurria	3. b. 02 - Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.
Kodea	3. b. 02/1

Izena

Eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak

Deskripzioa

Komunikabideen alorrean, udalaren zeregin nagusienetarikoa bat euskarazko komunikabideak sustatzea izango da. Sustapen-lan horren objetibotasuna bermatzearren, komeni da dirulaguntzak emateko irizpideak finkatuta izatea. Besteak beste, irizpide hauek izan ditzake kontuan: proiektuaren gutxieneko autofinantzaketa-maila; hartzailearen tipologia; bideragarritasuna; autofinantzaketa handitzeko ekimenak; aldizkariaren inguruko produktu berriak; inbertsio berrietarako aurreikuspenak; argitalpenaren maiztasuna; orrialde-kopurua eta orrialde-kostua; grafikoen, argazkien zein koloreen erabilera eta bestelako proposamenak. Udalak dirulaguntza horiek ematerakoan, gainerako herri-erakundeekiko osagarritasun-irizpideari begiratu beharko dio.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk * Komunikabideak

Beste agente espezifiko
batzuk

- * BAGABIZ ALDIZKARIA
- * BUSTURIALDEKO HITZA
- * OIZ-MENDI TELEBISTA

Beste datu batzuk

Lehentasuna

Altua

Oharrak

Orain arte bakoitzari ematen izan zaio bide desberdinetatik. Kontuan hartuta arloan dauden hiru komunikabideek enpresa egitura dutela, diru laguntzak esleitzeko araudia landu behar da, euskarazko komunikabideei diru-iturriak ziurtatze aldera.

Adierazleak

- * Emandako laguntzaren zenbatekoa
- * Busturialdeko Hitzari esleitutakoa
- * Oiz-mendi Telebistari esleitutakoa
- * Bagabiz aldizkariari esleitutakoa

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. h - Hedabideak
Neurria	3. b. 02 - Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.
Kodea	3. b. 02/2

Izena

Euskarazko herri edo eskualdeko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatu

Deskripzioa

Euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatzeko egitasmotzat hartuko dira, besteak beste, euskaraz diharduten komunikabideen titularrek antolaturiko bategite-egitasmoak, on-line argitalpenak, euskarazko komunikabideen ondarea digitalizatzea, eta antzeko beste egitasmo batzuk.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua * Kultura Saila
Udal agente espezifikoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Komunikabideak
Beste agente espezifiko batzuk	* BAGABIZ ALDIZKARIA

* BUSTURIALDEKO HITZA

* OIZ-MENDI TELEBISTA

Beste datu batzuk

Lehentasuna

Altua

Oharrak

Honakoa lotuta doa Informazioa eta komunikazio teknologia berrien esparruko ekintzekin -web orria,... -.

Adierazleak

* Teknologia berrietara egokitzeko ekimenak

Identifikazioa

Helburu nagusia	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Helburu estrategikoa	3 - Euskararen elikadura
Esparrua	3. h - Hedabideak
Neurria	3. b. 03 - Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.
Kodea	3. b. 03/1

Izena

Eskualdean diharduten komunikabideen arteko elkarlanerako bilgunea sortu

Deskripzioa

Komunikabideen giza eta diru-baliabideei etekin handiagoa ateratzeko, hau da, komunikabide bakoitzaren gastuak murrizteko edo sarrerak gehitzeko, eskualde mailako herri-komunikabideen arteko elkarlana susta dezake udalak, indarrak batzea denentzat gerta baitaiteke onuragarri. Udalak susta ditzakeen ekintzen artean, besteak beste, harpidetzak gehitzeko, irakurle berriak irabazteko, teknologia berriei egokitzeko eta produktu berriak sortzeko ekimenak egon daitezke.

Udal agenteak

Udal agente generikoak	* Euskara Zerbitzua
Udal agente espezifikokoak	-

Beste agente batzuk

Beste agente generiko batzuk	* Komunikabideak
Beste agente espezifikoko batzuk	-

Beste datu batzuk

Lehentasuna Erabatekoa

Oharrak Ekintza honekin lotuta, enpresa bideragarritasuna lortu eta kudeaketaren kalitatea lantzeko irizpideak finkatzearen, eskualde mailan diagnostiko bat egin ebhar da (biztanleriaren gustoak, komunikabideekiko jarrerak, erabiltzen den euskara,...).

Adierazleak

* Elkarlanerako ekimenak